Bestelako Xedapenak

ENPLEGU, ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

425

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 27koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Lan zuzendariarena, Sociedad Financiera y Minera SAren (Cementos Rezola SA) Añorga eta Arrigorriagako zentroetarako 2009-2012 hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratu dadila xedatzen duena (Hitzarmen kodea: 8600022).

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Negoziazio-mahaiko ordezkariek zuzendaritza honetan 2009ko irailaren 22an aurkeztu zuten aipatutako hitzarmenari buruzko derrigorrezko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Langileen Estatutuari buruzko Legea martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuz onartu zen (1995eko martxoaren 29ko BOE). Lege horren 90.2 artikuluan ezarritako eskumena lan-agintaritza honi dagokio Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuz, zeinen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen baitira. Eta Lan Zuzendaritza da eskumenduna, honako xedapen hauen arabera: Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 6ko 538/2009 Dekretuko 16.f) artikulua, hitzarmen kolektiboak erregistratzeari buruzko martxoaren 2ko 39/1981 Dekretua (1981eko apirilaren 2ko EHAA) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretua (1981eko ekainaren 6ko BOE).

Bigarrena.– Izenpetutako hitzarmenak bete egiten ditu Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak.

Honen ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hitzarmena EAEko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

425

RESOLUCIÓN de 27 de noviembre de 2009, de la Directora de Trabajo del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Sociedad Financiera y Minera, S.A.(Cementos Rezola, S.A.) para los centros de trabajo de Añorga y Arrigorriaga, para los años 2009-2012 (código de convenio n.º 8600022).

ANTECEDENTES

Primero.– El día 22 de septiembre de 2009 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por los representantes de la Mesa Negociadora.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, siendo la Dirección de Trabajo el órgano competente en virtud de lo dispuesto en el art. 16.f, del Decreto 538/2009, de 6 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 02-04-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 06-06-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.– El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 27a.

Lan zuzendaria,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

Segundo.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2009.

La Directora de Trabajo,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA SOZIETATEAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA, «CEMENTOS REZOLA»REN LANTOKIETARAKO

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Erabiltze-eremua.

1.1.– Eremua. Hitzarmen kolektiboa «Sociedad Financiera y Minera SA» sozietateak ondoren aipatzen diren lantokietan dituen langile guztiei aplikatuko zaie:

a) Añorgako zementu-fabrika (Gipuzkoa).

b) Arrigorriagako(Bizkaia) zementu-fabrika.

1.2.– Langileak. Hitzarmen honetan ezarritakoa «Sociedad Financiera y Minera SA» sozietateak aurreko paragrafoan aipatutako lantokietan dituen langile guztiei aplikatuko zaie, edozein dela euren jarduera.

1.3.– Iraupen aldia. Hitzarmen honen indarraldia hiru urtekoa izango da, 2009ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2012ko abenduaren 31ra arte, salbu eta berariaz bestelako indarraldia egokitzen zaien kontzeptuetarako.

2. artikulua.– Hitzarmena salatzea.

2012ko azaroaren 15etik aurrera, hitzarmena besterik gabe salatutzat joko da, bi aldeek horren berri eman behar izan gabe.

3. artikulua.– Ordezkapena, irenspena eta baldintza onuragarriagoak.

Orain ezarritako baldintza ekonomikoek eta lanaldiari buruzkoek irentsi eta konpentsatu egin ditzakete hitzarmen honen aurretik egindako hobekuntza guztiak.

Baldintza onuragarrienak atxikiko dira, baldin eta guztira eta urteko zenbaketan hitzarmen honetakoak gainditzen badituzte.

4. artikulua.– Hitzarmena Interpretatzeko Bitariko Batzordea.

Bitariko batzorde bat eratzen da hitzarmen hau interpretatzeko. Hitzarmena sinatzen duten lau langilek eta enpresaren lau ordezkarik osatuko dute.

CONVENIO COLECTIVO DE SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, S.A. PARA SUS CENTROS DE TRABAJO DE CEMENTOS REZOLA.

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Ámbito de aplicación.

1.1.– Territorial. El presente convenio colectivo será de aplicación a los siguientes Centros de Trabajo pertenecientes a la Empresa Sociedad Financiera y Minera, S.A.

a) Fábrica de Cementos de Añorga (Gipuzkoa).

b) Fábrica de Cementos de Arrigorriaga (Bizkaia).

1.2.– Personal. Las estipulaciones del presente Convenio afectan a la totalidad del personal de Sociedad Financiera y Minera, S.A. que presten sus servicios en los Centros de Trabajo especificados en el párrafo anterior, cualquiera que sea la actividad a que se dedique.

1.3.– Temporal. La vigencia del presente Convenio será de cuatro años extendiendo sus efectos desde el día primero de enero de 2009 hasta el 31 de diciembre de 2012, salvo para aquellos conceptos cuya vigencia temporal distinta se indica expresamente.

Artículo 2.– Denuncia.

A partir del 15 de noviembre de 2012, el Convenio se considerará denunciado automáticamente, sin necesidad de comunicación previa por ambas partes.

Artículo 3.– Compensación, absorción y condiciones más beneficiosas.

Las condiciones económicas y de jornada fijadas en el presente Convenio son absorbibles y compensables con las mejoras de toda clase que existan con anterioridad.

Se mantendrán las condiciones más beneficiosas, en cuanto estas superen en conjunto y computo anual, las especificadas en este Convenio.

Artículo 4.– Comisión mixta interpretativa.

Se constituye una Comisión Mixta Interpretativa del presente Convenio, que estará integrada por cuatro representantes de los trabajadores y trabajadoras firmantes del Convenio y cuatro representantes de la Empresa.

Klausulak interpretatu eta aplikatzerakoan zalantzak edo desadostasunik gertatuz gero, bitariko batzordeak irizpena eman beharko du nahitaez.

Oro har eta ahal delarik, hilabeteko epean emango zaie erantzuna langileen eskabideei.

5. artikulua.– Hitzartuarekiko lotura.

Hitzarmen honetan lanaldiaz, urteko oporrez eta ordainsariez ezarritakoa, bai biltzarrei bai enpresa-batzordekideei eta ordezkari sindikalei dagokienez, multzo bat da, zatiezina, urteko zenbaketa egiterakoan; beraz, ezingo da zatika aplikatu.

Hori dela eta, hitzarmenaren indarraldian, edozein erabaki administratibok edo jurisdikzionalek gai horietakoren bat aldatuz gero, sortzen den aldea konpentsatu edo irentsi egiten dela ulertuko da, gainerako gaiei buruz legez ezarritako gutxienekoen gainean hitzartu diren hobekuntzak erantsita.

II. KAPITULUA
LANGILEEN ERREGIMENA

6. artikulua.– Sarrerak, mailak eta soldaten progresioa.

6.1.– Kontratatu beharreko langile finko edo behin-behinekoen izena eta lanbide-maila jakinarazi ko dizkie enpresaren zuzendaritzak sindikatuei.

6.2.– Precok 1998-2000 Enplegu Planean dauden langileei aplikatzeko hartu zuen laudoan ezarritako ildoari jarraituz, Cementos Rezola lantokian sartzen diren langileen soldata-progresioari dagokionez, taulan honetan ezarritakoaren arabera egitea erabaki da:

Cuantas dudas y divergencias puedan surgir entre las partes respecto a la interpretación o aplicación de sus cláusulas, serán sometidas al dictamen obligatorio de dicha Comisión.

Las peticiones de los trabajadores y las trabajadoras, siempre que no exista alguna imposibilidad, tendrán contestación dentro del plazo de un mes.

Artículo 5.– Vinculación a lo pactado.

Lo acordado en este Convenio para jornada de trabajo, vacaciones anuales y horas retribuidas, tanto para asambleas como para miembros de los Comités de Empresa y Delegados/as Sindicales, forman un todo único e indivisible en conjunto y en cómputo anual, y por lo tanto no podrán ser contemplados aisladamente.

En consecuencia, si por cualquier Resolución administrativa o jurisdiccional se modificase durante la vigencia del Convenio cualquiera de dichos temas, se entenderá absorbida y compensada la diferencia, con las mejoras que, sobre los mínimos legales establecidos, se han pactado en el resto de los temas.

CAPÍTULO II
REGIMEN DE PERSONAL

Artículo 6.– Ingresos, niveles y progresión salarial.

6.1.– La Dirección de la Empresa comunicará a las secciones sindicales el nombre y nivel profesional de ingreso del personal fijo o eventual objeto de contratación.

6.2.– La progresión salarial de las nuevas incorporaciones en Cementos Rezola y siguiendo la línea establecida por el Laudo dictado por el Preco para la aplicación en aquellos trabajadores y trabajadoras comprendidos/as en el Plan de Empleo 1998–2000, se acuerda que se realicen conforme a lo establecido en el siguiente cuadro:

Sekzioa:	X1	IX	VIII	VII	VI	V	IVC	IVB	III
Harrobia	6 m.		6 m.		12 m	12 m	Zehazg.		
Ontziratzea	6 m.	6 m.	6 m.		12 m.	Zehazg.			
Biltegia	6 m.	6 m.	6 m.		12 m.	Zehazg.			
Produkzioa									
Labezain laguntzailea	6 m.		6 m.		12 m.	12 m.	Zehazg.		
Labezaina								Zehazg.	
Kontramaisua									Zehazg.
Laborategia									

Sekzioa:	X1	IX	VIII	VII	VI	V	IVC	IVB	III
2. analista	6 m.		6 m.		12 m.	12 m.	Zehazg.		
1. analista								Zehazg.	
Mantenimendua									
2. ofiziala	6 m.		6 m.		12 m.	12 m.	12 m.		
1. ofiziala								Zehazg.	
Atezaintza	6 m.	6 m.	6 m.		Zehazg.				
Fabrikazioko laguntzailea	6 m.		6 m.		12 m.	12 m.	Zehazg.		
Administrazioa									
2. administrari laguntzailea	6 m.	12 m.							
1. administrari laguntzailea			12 m.						
3. ofiziala				Zehazg.					
2. ofiziala					Zehazg.				
1. ofiziala						Zehazg.			

Sección	*X1*	*IX*	*VIII*	*VII*	*VI*	*V*	*IVC*	*IVB*	*III*
Cantera	*6 m.*		*6 m.*		*12 m*	*12 m*	*Indef.*		
Envasado	*6 m.*	*6 m.*	*6 m.*		*12 m.*	*Indef.*			
Almacén	*6 m.*	*6 m.*	*6 m.*		*12 m.*	*Indef.*			
Producción									
Ayte. hornero	*6 m.*		*6 m.*		*12 m.*	*12 m.*	*Indef.*		
Hornero								*Indef.*	
Contramaestre									*Indef.*
Laboratorio									
Analista 2.ª	*6 m.*		*6 m.*		*12 m.*	*12 m.*	*Indef.*		
Analista 1.ª								*Indef.*	
Mantenimiento									
Oficial de 2.ª	*6 m.*		*6 m.*		*12 m.*	*12 m.*	*12 m.*		

Sección	*X1*	*IX*	*VIII*	*VII*	*VI*	*V*	*IVC*	*IVB*	*III*
Oficial de 1.ª								*Indef.*	
Portería	*6 m.*	*6 m.*	*6 m.*		*Indef.*				
Auxiliar fabricación	*6 m.*		*6 m.*		*12 m.*	*12 m.*	*Indef.*		
Administración									
Aux. Adm. 2.ª	*6 m.*	*12 m.*							
Aux. Adm. 1.ª			*12 m.*						
Oficial de 3.ª				*Indef.*					
Oficial de 2.ª					*Indef.*				
Oficial de 1.ª						*Indef.*			

Taulan dauden geziek betekizunen bat bete behar dela esan nahi dute:

Labezain, kontramaisu eta 1. analistaren sustapena lanpostu huts bat dagoenean baino ez da egingo. Enpresak askatasun osoz izendatuko du aurreko kategoria duten langileen artean (fabrikazioko laguntzailea barne).

Administrazioan, 2. ofizialaren sustapena hauentzat baino ez da egingo: LH II administrarien titulua edo baliokidea izanda, 3. graduko ofizialaren kategorian 12 hilabete daramaten langileentzat. 1. ofizialak, antolakuntzako beharrak direla-eta, langilearen nagusiak izendatuko ditu askatasun osoz, 2. ofizialen artean.

Mantenimenduko 2. ofizialak 1. ofizial izango dira Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak erabakitako azterketa bat gainditzen dutenean. 2. ofizialek 1. ofizial izateko sustapena egingo dute 2. ofizial izateko aldia amaitu eta hurrengo egunean, baldin eta egun horretatik hasita sei hilabete pasa ondoren enpresak dei egin ez badie azterketa egiteko.

Langileek, enpresan sartzerakoan, egiaztatutako esperientzia badute, beste formula baten bitartez sartu ahal izango dira, betiere, esperientzia hemen jasotakoa baino handiagoa bada.

Aldi baterako kontratazio guztiak VI. mailaz sartuko dira Laguntza Zerbitzuetan eta Fabrikazioan eta VIII. mailaz Administrazioan.

Las flechas en el cuadro son indicativas del cumplimiento de algún requisito:

La promoción a las categorías de hornero/a, contramaestre y analista de 1.ª sólo se llevará a efecto en los casos en los que exista una vacante. La designación se llevará a cabo libremente por la empresa de entre los trabajadores y las trabajadoras que ocupen la categoría inmediatamente anterior (incluida la de Auxiliar de fabricación).

En administración, la progresión a oficial de 2.ª sólo será posible para aquellas personas que se encuentren en posesión del Título FP II administrativo o similar, por el transcurso de 12 meses en la categoría de oficial de 3.ª. Los/las oficiales de 1.ª serán designados/as libremente por la empresa, en su caso, de entre los/las oficiales de 2.ª, por su superior/a en función de las necesidades organizativas.

Los/las oficiales de 2.ª de mantenimiento pasarán a oficiales de 1.ª cuando superen una prueba establecida por acuerdo entre la Dirección y el Comité de Empresa. Los/las oficiales de 2.ª promocionarán a oficiales de 1.ª desde el día siguiente a la finalización del período de permanencia como oficiales de 2.ª si, transcurridos seis meses desde dicha fecha, la Empresa no los/las convoca a la realización de la prueba.

Las incorporaciones que posean una experiencia profesional acreditada podrán acceder mediante otra fórmula, siempre que sea superior a la aquí recogida.

Todas las contrataciones que tengan carácter eventual se incorporarán por el nivel VI en Servicios Auxiliares y Fabricación y por el nivel VIII en Administración.

Langileren bat Rezola lantokiko plantillara aldi baterako kontratu batez sartzen bada eta gero mugagabea egiten bazaio, bere lanbide-taldeko kategoria goreneko aurreko mailetan egon beharko du aipatutako taulan bere lanbide-taldearen progresio osorako jarritako denboraz.

Prestakuntza eta progresioa ondo garatzeko, Enpresaren Prestakuntza Planean esaten diren ikastaroetan parte hartuko dute langileek.

7. artikulua.– Gaitasuna murriztuta duten langileak.

Ezintasun iraunkor osoa onartuta duten langileei lanpostu bat bermatuko zaie enpresan. Ezintasun hori lan-istripu baten ondorioz sortu bada, lanpostu berriari dagokion lansaria kobratuko du. Lanetik kanpo izandako istripu baten ondorioz edo gaixotasun arrunt baten ondorioz sortu bada, ordurarteko lansaria jasoko du, Administrazioaren erakunde eskudunak onartutako pentsio-kopurua kenduta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko edonolako arazorik egonez gero, bi aldeek kasu horiek aztertzeko hitza ematen dute.

Edozein kasurengatik ezintasun iraunkor osoa duen langileren baten pentsioa edo bera lan-egoerari darion beste edozein prestazio indarrean den legedia aplikatzerakoan ez dela gutxituko bermatuko du enpresak.

8. artikulua.– Erretiroa 65 urterekin.

Hitzarmen honen menpeko langileek, 65 urte betetakoan, oinarri erregulatzailearen ehuneko ehunarekin erretiro hartzeko aukera badute, behin betiko baja hartuko dute enpresan.

III. KAPITULUA
LANALDIA, ATSEDENAK ETA OPORRAK

9. artikulua.– Lanaldia.

Honakoa izango da lanaldia hitzarmena indarrean dagoen bitartean:

a) Lanaldi zatitua duten langileak: 1.600 benetako lanordu urtean.

b) Txandakako langileak: 1.600 benetako lanordu urtean. Horren barruan sartzen dira laneguneko 20 minutuko atsedenaldi ordainduak, zeina benetan sartutako denbora legetxe konputatuko baita, ordaindutako izaera izaki.

c) Bulegoetako langileak: 1.600 benetako lanordu urtean.

En el supuesto de que un trabajador o una trabajadora que hubiera accedido a la plantilla de Rezola con motivo de un contrato eventual, si finalmente accediera a un puesto con carácter indefinido, deberá permanecer en los niveles precedentes al máximo de su grupo profesional, el tiempo equivalente al total de la progresión de su grupo profesional según el cuadro antedicho.

Para un buen desarrollo de la formación y progresión, los trabajadores y trabajadoras contratados/as asistirán a los cursos que se planteen en el Plan de Formación de la Empresa.

Artículo 7.– Personal con capacidad disminuida.

Los trabajadores y trabajadoras a los que se reconozca una incapacidad permanente total tendrán garantizado un puesto de trabajo en la Empresa. Si dicha incapacidad deriva de accidente laboral, tendrá garantizado el salario del nuevo puesto de trabajo. Si fuera consecuencia de accidente no laboral o enfermedad común, se le respetará la percepción económica que venia disfrutando, deduciéndosele la cantidad que en concepto de pensión le haya reconocido el organismo competente de la Administración.

Si se diera algún caso en el que hubiere dificultades para garantizar las condiciones del párrafo anterior, las partes se comprometen a estudiar los casos concretos que pudieran plantearse.

La Empresa garantizará que cualquier trabajador o trabajadora afecto/a por una Incapacidad Permanente Total, derivada de cualquier causa, no pueda ver mermada su pensión de jubilación o cualquier otra prestación derivada de su situación laboral por la aplicación de la actual legislación en dicha materia.

Artículo 8.– Jubilación a los 65 años.

Todo el personal afectado por el presente Convenio que al cumplir 65 años pueda jubilarse con el cien por cien de la base reguladora correspondiente a ese momento, causará baja definitiva en la Empresa.

CAPÍTULO III
JORNADA, DESCANSOS Y VACACIONES

Artículo 9.– Jornada de trabajo.

La jornada laboral durante la vigencia del Convenio será la siguiente:

a) Personal de jornada partida: 1.600 horas anuales efectivas de trabajo.

b) Personal de turno: 1.600 horas anuales efectivas de trabajo, incluyéndose dentro de las mismas 20 minutos de descanso por día de trabajo, que se computará como tiempo efectivo, teniendo carácter de retribuido.

c) Personal de oficinas: 1.600 horas anuales efectivas de trabajo.

Lanaldi zatitua duten langileek eta bulegoetakoek 08:00etatik 13:00etara egingo dute lan Santo Tomás egunean, Gabon gauean eta Gabon Zahar egunean. Jaiegunak badira, ordea, urteko benetako lan-orduei egokituko zaizkie.

10. artikulua.– Egutegia eta ordutegia.

Enpresako Batzordearekin batera Enpresako Zuzendaritzak finkatuko ditu ordutegia eta egutegia.

10.1.– Lan egutegia.

Kontuan hartu beharreko urtearen aurreko abenduaren 1erako eginda egongo da egutegia. Urteko lehenengo hamabostaldiko langileak eurei dagokien txandari egokituko zaizkio, eta horren arabera hartuko dituzte oporrak.

Hurrengo urteetan ere berdin jokatuko da. Lan egutegia finkatzeko irizpideak ondoren adierazten diren baldintzetan oinarrituko dira:

a) Lanaldi zatitua duten langileek, 8 ordukoa izango da lanaldia astelehenetik ostiralera, biak barne, eta 5 ordukoa (8:00etatik-13:00etara) egutegian horrela finkatzen diren ostiraletan.

b) Urteko orduen kopuruan langilearen alde geratzen diren orduak, Egutegiaren Birdoiketaren atalean sartuko dira. Gutxienez 80 ordu izango dira eta, ahal dela, egun osoko lanaldietan hartuko dira.

c) Langileak berak aukeratuko du egutegi birdoiketako orduak noiz hartuko dituen; hala ere, dagokion saileko arduradunari eskatu beharko dizkio hartu aurretik. Aukeratutako eguna hartzeko arazoak egonez gero, langilea eta arduraduna ados jarriko dira beste egun batean hartzeko. Ados ezin badira jarri, Bitariko Batzordeak ebatziko du egoera bakoitza.

d) Egutegiko birdoiketako orduak sortzen diren urtean bertan hartu beharko dira. Dagokion urtean ezin hartu izan direnean hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte hartu ahal izango dira.

e) Egutegiko Birdoiketako orduak, ahal dela, urte osoan zehar hartuko dira, lan sistema hobeto antolatzeko.

f) Ezintasun iragankorra edo amatasuna benetako lanalditzat hartuko dira eta ez dute, inolaz ere, egutegi birdoiketako orduen murrizketarik ekarriko, baldin eta hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen hartzen badira. Langileak egun horretan bajari eusten badio, baja amaitzen denean egindako lanegunengatik benetan sortutako egunak hartu ahal izango ditu.

g) Ekoizpenak hala eskatzen duelako bi txandetan, goiz eta arratsaldean, diharduten langileek egutegi bat

El personal de jornada partida y oficinas trabajará de 08.00 a 13:00 horas los días de Santo Tomás, Nochebuena y Nochevieja salvo que sean festivos, ajustándose, en todo caso, a las horas anuales efectivas de trabajo.

Artículo 10.– Calendario y horario.

La fijación de los horarios de trabajo y los calendarios laborables, será facultad de la Dirección de la Empresa con la intervención de los Comités de Empresa.

10.1.– Calendario laboral.

El calendario estará elaborado antes del 1 de diciembre del año anterior al que corresponda, acoplándose el personal en la 1.ª quincena del año al turno que corresponda con el disfrute de sus vacaciones y de igual manera se aplicará en los años sucesivos.

Los criterios para la elaboración del calendario laboral estarán basados en las condiciones que se recogen a continuación:

a) Para el personal en jornada partida, la jornada laboral será de 8 horas diarias de lunes a jueves, ambos inclusive, y de 5 horas diarias (08:00 a 13:00 h) los viernes que así se establezcan en el calendario.

b) La diferencia de horas resultantes al año a favor del trabajador o trabajadora, se conceptuará como Reajuste de Calendario (RC), que será de 80 horas al año como mínimo, que serán disfrutadas, preferentemente, por días completos.

c) El disfrute de las horas de Reajuste de Calendario se realizarán a elección del trabajador o trabajadora, previa petición a la persona responsable de la sección correspondiente. Si no fuera posible la realización en la fecha señalada, el trabajador o trabajadora y la persona responsable de la sección se pondrán de acuerdo en una nueva fecha. En caso de desacuerdo, la Comisión Mixta interpretará cada situación concreta.

d) El disfrute de las horas de Reajuste de Calendario se realizará durante el año que se generan. Será posible su realización hasta el 31 de enero del año siguiente siempre que haya habido imposibilidad material de realizarlos durante el año en curso.

e) Para una mejor organización del sistema de trabajo se recomienda que el disfrute de los RC se distribuya durante todo el año.

f) Las situaciones de IT y de Maternidad, serán consideradas como tiempo efectivo de trabajo sin que ello suponga ningún menoscabo ni deducción de los RC siempre que se disfruten antes del 31 de enero del año siguiente. Si en dicha fecha el trabajador o trabajadora continuara de baja, a la finalización de ésta disfrutará los días realmente generados por los días de trabajo realizados.

g) El personal que por necesidades de producción trabaje en 2 turnos de mañana y tarde elaborará un

egingo dute eta bertan oporrak eta egutegi-birdoiketa orduak jasoko dira, lanaldi-zatitua duten langileek duten bezala.

Aurreko idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera finkatutako egutegia beste akordio baten bidez baino ezin izango da aldatu eta ezin izango da aldatu, inolaz ere, alde bietako batek bakarrik hala erabakitzen badu.

10.2.– Lan ordutegia.

10.2.1.– Sekzioen ordutegia honako hau izango da:

a) Txandakako langileak.

06:00etatik 14:00ak arte.

14:00etatik 22:00ak arte.

22:00etatik 06:00ak arte.

Ordezkapenak 06:00etatik 14:00etara egingo dira eskuarki, sekzio bakoitzean, salbu eta enpresak zerbitzu horien beharrik ez badu beste txandetan edo lanaldi zatituan edo beste sekzioetan.

b) Lanaldi zatitua duten langileak: astelehenetik ostiralera:

Goizez 08:00etatik 12:00etara.

Arratsaldez 13:00etatik 17:00etara.

Lanaldi erdiko egunean, 08:00etatik 13:00etara.

c) Administrazio-langileak:

Goizez 08:00etatik 13:00etara.

Arratsaldez 14:00etatik 17:00etara.

Lanaldi erdiko egunean, 08:00etatik 13:00etara.

Lana neurtzeko moduak ziurtatuko du bai lanaldiaren hasieran bai bukaeran langilea bere lanpostuan egongo dela.

Enpresaren jardunaren ondorioetarako, eguna 06:00etan hasiko da eta biharamuneko 06:00etan amaituko.

10.2.2.– Txandakako langileen lanaldiak ezaugarri hauek izango ditu:

a) Ziklo osoko txandako lanaldia duten lanpostuetan, sei langile txandakatuko dira lanpostu bakoitzeko.

b) 8 orduko txanda etengabea egiten duten langileek 20 minutuko atsedenaldia, «ogitartekokoa» deritzona, hartzeko eskubidea dute. Arrazoi pertsonalengatik edo lanpostuaren berezitasunengatik atseden hori hartzerik ez dagoenean, ziklo osoan zehar langileak txandako astean zortzi orduko jardunari dagokion atsedenaldia hartu ahalko du.

Atsedenaldi egun hori, «Ogitarteko Jaia» deritzona, asteartean izango da Añorgan eta astelehenean Arrigorriagan, lan zikloa hasi aurreko egunean, eta ezingo

calendario con su horario de trabajo donde se recogerá su derecho a las mismas vacaciones y RC que los de jornada partida.

El calendario establecido de acuerdo a los criterios que anteceden, solo podrá ser modificado por un nuevo acuerdo y no por una decisión unilateral de alguna de las partes.

10.2.– Horario de trabajo.

10.2.1.– Los horarios para las diferentes secciones existentes serán los siguientes:

a) Personal de turno:

De 06:00 a 14:00 horas.

De 14:00 a 22:00 horas.

De 22:00 a 06:00 horas.

Las suplencias normalmente serán de 06:00 a 14:00 horas en su sección, salvo que la Empresa no tenga necesidad de sus servicios en otros horarios de turno o jornada partida u otra sección.

b) Personal de jornada partida: de lunes a viernes:

Por la mañana de 08:00 a 12:00 horas.

Por la tarde de 13:00 a 17:00 horas.

El día de 1/2 jornada de 08:00 a 13:00 horas.

c) Personal de administración:

Por la mañana de 08:00 a 13:00 horas.

Por la tarde de 14:00 a 17:00 horas.

El día de 1/2 jornada de 08:00 a 13:00 horas.

El tiempo de trabajo se computará de modo que tanto al comienzo como al final de la jornada diaria el trabajador o trabajadora se encuentre en su puesto de trabajo.

A los efectos de funcionamiento en la Empresa, el inicio del día será a las 6 horas, y finalizará a las 6 horas del día siguiente.

10.2.2.– La jornada para el personal de turno se acomodará a las siguientes normas:

a) La rotación de los puestos de trabajo sometidos a turno de ciclo completo, se efectuará con equipos de seis operarios u operarias por puesto de trabajo.

b) Los trabajadores y trabajadoras que realizan turnos continuados de 8 horas, tienen derecho a 20 minutos de descanso, denominado de bocadillo. Cuando por razones personales o del puesto de trabajo no puedan descansar el citado periodo, durante el ciclo completo, el trabajador tendrá derecho a disfrutar un descanso equivalente a una jornada de ocho horas.

Este día de descanso, denominado Fiesta de Bocadillo, quedarán establecidos los martes en Añorga y los lunes en Arrigorriaga, el día anterior al inicio del

da erabili bestelako gora-beherako batzuei aurre egiteko.

«Ogitarteko Jaia» deritzen egunetan lan egin ahal izango da baldin eta langileak gutxienez bezperan abisua eman badu. Deia jaso ez duen langileak ez du izango aurkitzeko moduan zertan egon beharrik izango. Lanaldi horiek Ogitarteko plus legetxe ordaindu beharko dira, I. eranskineko taularen arabera.

c) Txandako langileak ezin baditu ziklo osoan pilatutako atsedenaldi horiek gozatu, burututako lanaldiak atsedenaldian zehar egindako etentzat hartuko dira, salbu eta ogitartekoko atsedenaldia konpentsatzeko hartzen den jaieguna.

d) Laneko ziklo osoa bukatu ondorengo astean, erretenaren figura sartu da; txanda bakoitzeko egutegian jarriko dira egunak. Erreteneko langileek obligazioa dute edozein unetan lokalizatzeko moduan egoteko eta gehienez ere bi orduko epean lanpostura joateko, eskatzen zaionetik hasita. Erretena izendatu zaion langileak horretarako jarritako plusa (soldata-tauletan jarritakoa) jasoko du.

Erreten-egunean lan egindako orduak soldata-tauletako gertutasun-plusaren kontzeptuarekin bat ordainduko dira. Plus horretaz gain, gaueko eta jaieguneko edo igandeko plusak jasoko dira, hala gertatzen denean. Eratorritako konpentsazio eguna, ordezkapen egunen kargura izango da.

e) Ordezkapen eguna kendu egiten da egutegietatik.

Doitu behar diren ordezkapen egunak erreten astean errekuperatuko dira, 06:00etatik 14:00etara, larunbata, igande edo jaiegunak izan ezik, betiere gora-behara bat betetzeko ez bada. Lan egindako gehiegizko orduak murrizte aldera eskabidea egin duten langileen atseden absentziak betetzeko erabili ahal izango dira ordezkapenak. Kasu horiek ez dira gora-behera modura hartuko.

f) Langile bakoitzaren kontaketa –urtekoa– egingo da, eta aurreko urteko txanda-egutegian lanaldi gehiegizkoen edo gutxiegikoen doiketa hurrengo urteko otsailaren azken egunean egingo da. Egun horretatik aurrera eskatu ahal izango dute langileek ordezkapenak egitea.

g) Txandako bajak –bi hilabetetik gorakoak– ordezko batez beteko dira. Mediku Zerbitzuak Enpresako Zuzendaritzari eta Batzordeari emango die gaixotasun komunaren edo laneko istripuen ondorioz eratorritako ABEren iraupen gutxi gora-beherakoa. Bajaren egunetik bi hilabete iraunda, ez da egongo baja ordez beharrik.

ciclo de trabajo y en ningún caso servirá para cubrir incidencias.

Los días de Fiesta de Bocadillo deberán ser trabajados si se avisa al trabajador o a la trabajadora mínimamente de víspera pero durante esos días el trabajador o la trabajadora que no hubiese sido convocado/a no tendrá que estar localizable. Dichas jornadas serán abonadas como Plus Bocadillo, según tabla anexo I.

c) En el caso de que un trabajador de turno no pudiera disfrutar las jornadas de descanso acumuladas durante el ciclo completo, se considerarán las jornadas trabajadas como interrupción de la jornada de descanso, excepto la jornada festiva compensatoria de los descansos del bocadillo.

d) Durante la semana siguiente a la finalización del ciclo completo de trabajo, se establece la figura del retén, quedando los días fijados en el calendario de cada uno de los turnos. El personal de retén tendrá la obligación de estar localizable y acudir al puesto de trabajo en un plazo máximo de 2 horas, desde que así le sea requerido. Durante los días que el trabajador tenga asignado un retén percibirá el plus establecido al efecto y recogido en las tablas salariales.

Las horas trabajadas en el día de retén se abonarán de acuerdo al concepto de Plus Disponibilidad de las tablas salariales. Además del citado plus, se percibirán los pluses de nocturnidad y festivo o domingo, cuando concurran tales circunstancias. El día de compensación generado, serán a cargo de los días de suplencia.

e) Se suprime la fijación de los días de suplencia en los calendarios.

Los días de suplencia que se deban ajustar, preferentemente se trabajarán estando en la semana de retén, en horario de 06:00 a 14:00 horas, en días que no sean sábados, domingos o festivos y siempre que no sea para cubrir una incidencia. Las suplencias podrán ser utilizadas para cubrir las ausencias por descanso de los trabajadores o trabajadoras que lo hayan solicitado para reducir excesos de horas trabajadas. Estos casos, no se considerarán incidencias.

f) Se realizará el cómputo anual de horas de cada trabajador o trabajadora y el ajuste de las jornadas de exceso o defecto en el calendario de turno del año anterior se realizará el último día de febrero del año posterior. A partir de dicha fecha se solicitará por los trabajadores y las trabajadoras la realización de las suplencias.

g) Las bajas prolongadas en el turno de más de dos meses de duración serán cubiertas por un sustituto. El Servicio Médico informará a la Dirección y al Comité de Empresa acerca de la duración estimada de las IT por enfermedad común y accidente de trabajo. Transcurridos dos meses desde la fecha de la baja, no habrá obligación de cubrir la incidencia.

11. artikulua.– Atsedenaldia etetea.

11.1.– Produktibitate-arrazoiengatik, lanaldi zatitua egiten duen langileren batek bere lanorduetatik kanpo lanean jardun behar badu, ordu horiek aparteko ordu gisa kobratuko ditu.

11.2.– Premiazko eginbehar hori ostiraleko 22:00etatik igandeko 22:00etara bitartean sortzen bada, edo jaiegun–bezperako 22:00etatik jaieguneko 22:00etara bitartean, langileak berariazko plus bat jasotzeko eskubidea izango du, aparteko ordainsariaz gainera (plusaren zenbatekoa I. eranskineko taulan adierazita dago). Berdin gertatuko da txandakako lanaldia egiten duen langilearekin, bere egutegiaren ezaugarrien arabera.

11.3.– Ordezkapena 22:00etatik 06:00etara egiten duen txandako langileak –ez badu egun horretan beste ordezkapenik egin behar, behintzat–, egun horretan, 22:00etatik aurrera lan egindako orduen hainbateko atsedenaldia izango du, betiere biharamuneko eguna laneguna bada bere egutegiaren arabera.

12. artikulua.– Lanpostuko txandak.

Lanaldi etengabea egiten duen langileak, ordezko kiderik ez badu, gehienez ere hiru ordu egingo ditu bere postuan. Ordu horiek aparteko ordu moduan ordainduko dira.

Lanaldi luzatu hori amaitutakoan langileak garraiorik ez badu, enpresak hartuko ditu bere gain horrek sortarazitako gastuak.

13. artikulua.– Lanaldi bereziak.

Lanaldi zatitua egin ohi duen langileak baldin eta igandetik ostegunera (biak barne), 22:00etatik aurrera, lanik egin behar badu, eskubidea izango du, aparteko orduak kobratzeaz gainera, biharamunean 22:00etatik aurrera egindako lanorduez besteko atsedena hartzeko biharamunean. Atseden hori ordaindu egingo zaio.

14. artikulua.– Oporrak.

14.1.– Oporrak urte naturalaren arabera ordainduko dira, eta urtean urtekoak hartuko dira.

14.2.– Hitzarmen honek indarra duen artean, urtean 30 egun naturali dagozkien arauzko oporrak ordainduko dira. Opor horiek nahitaez 26 lanegunetan hartuko dira (4 larunbat eta 4 ostiral barne) eta aurreneko opor-eguna lanegun batean hartuko da.

Txandakako langileek 22 opor-egun izango dituzte, egutegiko horrenbesteko benetako lanegunetan hartzeko, lehen aitaturiko 26 lanegun horietan lau larunbat daude eta.

Artículo 11.– Interrupción de jornada de descanso.

11.1.– Siempre que por razones de producción, algún trabajador o trabajadora de jornada partida tuviera que incorporarse a su puesto de trabajo después de haber concluido sus trabajos, tendrá derecho a cobrar, por las horas que trabaje, horas extraordinarias.

11.2.– Si la llamada o interrupción del descanso se produjera en el periodo que va de las 22:00 horas del viernes a las 22 horas del domingo, o/y de las 22:00 horas del día precedente al festivo hasta las 22:00 horas del mismo, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a percibir, además un Plus por este concepto, en la cuantía que para cada uno de los niveles se fija en la tabla del anexo I. Igual tratamiento se aplicará al personal de turno rotativo en función de las características de su calendario.

11.3.– El personal de turno que se encuentre realizando una suplencia en el turno de 22:00 a 06:00 horas, y si no fuera necesario que realizara otra sustitución al día siguiente, este día, disfrutará de un descanso equivalente, en tiempo, a las horas trabajadas a partir de las 22:00 horas, siempre que la jornada siguiente fuese día de trabajo según su calendario.

Artículo 12.– Relevos en el puesto de trabajo.

El personal de turno que trabaje en jornada continuada, que no sea relevado por su compañero o compañera, permanecerá en su puesto de trabajo hasta un tope de tres horas. Estas horas se abonarán como extraordinarias.

Si a la salida de este turno prolongado se diera la circunstancia de falta de medios de transporte, la Empresa abonará los gastos ocasionados por esta causa.

Artículo 13.– Jornadas especiales.

Los trabajos realizados a partir de las 22:00 horas, en los días de domingo a jueves, ambos inclusive, por el personal que habitualmente trabaja a jornada partida, darán derecho, además de percibir las horas extraordinarias, a descansar el día siguiente el mismo número de horas trabajadas desde las 22 horas. Este descanso será retribuido.

Artículo 14.– Vacaciones.

14.1.– Las vacaciones se devengarán por año natural y se disfrutarán dentro del mismo año.

14.2.– Durante la vigencia de este Convenio, se retribuirán anualmente, en concepto de vacaciones reglamentarias 30 días naturales, debiendo disfrutarse exclusiva y necesariamente 26 días laborables (incluyendo 4 sábados y 4 viernes), iniciándose el disfrute de las mismas en un día de trabajo.

El personal de turno disfrutará 22 días de vacaciones, coincidentes con otros tantos días de trabajo efectivo, según su calendario, por estar incluidos dentro de los 26 días laborables, cuatro sábados.

Oporren ondorioetarako, larunbatak lanegun osotzat hartuko dira.

Txandakako langileentzako oporrak sekzioka eta jarraian ezarriko dira, halako moduan non banaka hartuko diren eta gainerakoek errotatu egingo duten txandaren barnean.

14.3.– Enpresa prest egongo da bestelako lanegutegiak aztertu eta onartzeko, baldin eragindako sekzioetako langile guztiek hitza ematen badute, denek batera edo banan-banan, edozein gorabehera dela-eta (bajak, lanera ez agertzeak...) sorturiko hutsuneak betetzeko, hau da, hitza ematen dute zerbitzua bermatuko dela –baita langilea oporretan dagoenean ere– eta horrek ez diola enpresari inolako ordainketarik (ez dirutan ez bestelakoetan) sortuko. Hala ere, ordainketa horiek egin egingo dira egutegi ofiziala aplikatu beharraren ondorioz gertatzen denean aipatu kasua.

Enpresak egutegi ofizialaz besteko egutegiak onartzeak, nahiz eta onarpen hori sekzio berean urtez urte errepikatu, ez du ekarriko, inola ere, eskuratutako eskubiderik ezta inongo aparteko onurarik ere.

14.4.– Enpresako sekzioek abenduaren 1a baino lehen aurkeztuko dituzte euren oporraldien egutegiak.

Lanaldi zatitua egiten duten sekzioek martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren oporraldien egutegiko orriak. Egutegiok apirilaren 15a baino lehen onartuko dira behin betiko.

14.5.– LANEren 132. Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, langilearen borondatetik at dauden arrazoiengatik gertatzen diren ez agertzeak –esaterako, istripuak, gaixotasunak edo haurra izatea– benetan lan egindako denboratzat hartuko dira, oporraldiaren ondorioetarako.

14.6.– Oporretan dagoela, langileak lanerako ezintasun iragankorra hartzen badu, enpresari jakinarazi beharko dio eta une horretan eten egingo da oporren kontaketa. Etenak ezintasunak besteko iraupena izango du. Gozatzeko falta duen oporraldi-zatia enpresarekin hitzartuta hartuko du urte natural horren barnean, salbu eta aurretik oporraldia abenduan osorik edo zati batean hartzekoa baldin bazuen; azken kasu horretan aukera izango du hurrengo urtean hartzeko, enpresarekin ados jarri ondoren.

14.7.– Abenduaren 31 heldu eta langilea oraindik ezintasun iragankorraren egoeran badago eta alta hurrengo urtean hartzen badu, alta hartzen duenean hartuko ditu aurreko urtetik falta dituen oporegunak.

14.8.– Oporraldiko soldata langileak egiten duen ohiko lanaldiari dagokiona izango da.

A efectos de vacaciones los sábados se computarán como día laborable completo.

Las vacaciones serán fijadas en el calendario del personal de turno, por secciones y de forma continuada, uno cada vez y los demás rotarán dentro del turno.

14.3.– La Empresa estudiará, y en la medida de lo posible aceptará, otros calendarios distintos del oficial, siempre que todos los trabajadores y trabajadoras de las secciones correspondientes se comprometan, conjunta o individualmente, a cubrir cualquier otra incidencia que pueda producirse por bajas, ausencias, etc., es decir, cubrirán el servicio, aun cuando, incluso, pudieran encontrarse disfrutando sus vacaciones, sin que ello suponga para la Empresa ningún pago, tanto en metálico como de otro tipo, por las incidencias que se produzcan, salvo los que se hubieran producido en el caso de que se hubiese tenido que aplicar para el funcionamiento real el calendario oficial.

El hecho de que la Empresa acepte calendarios distintos al oficial, incluso de manera reiterada y a la misma sección, no originará, a ningún efecto, derecho adquirido ni condición más beneficiosa alguna.

14.4.– Las secciones presentarán los calendarios de vacaciones antes del 1.º de diciembre.

Las secciones de jornada partida deberán entregar las hojas con las vacaciones antes del 15 de marzo y su confección y aprobación definitiva deberá estar antes del 15 de abril.

14.5.– De acuerdo con lo establecido en el Convenio n.º 132 de la OIT, las ausencias al trabajo por motivos independientes a la voluntad del trabajador o trabajadora, como accidente, enfermedad o maternidad, serán considerados como tiempo de trabajo efectivo, a los efectos de devengo de las vacaciones.

14.6.– Si durante el período de disfrute de las vacaciones, el trabajador o la trabajadora entrara en situación de I.T. lo deberá poner en conocimiento de la Empresa, quedando las mismas interrumpidas durante el período que persista dicha situación de I.T., disfrutando los días que le resten en la fecha que así lo acuerde con la Empresa, dentro del año natural, salvo que el período de vacaciones señalado en su calendario coincida, total o parcialmente, con el mes de diciembre, pudiendo en este caso disfrutarse en el año siguiente de mutuo acuerdo con la Empresa.

14.7.– Si dicho trabajador o trabajadora continuara de baja en situación de I.T., el 31 de diciembre y causara alta dentro del año siguiente, reanudará las vacaciones para disfrutar los días devengados en el período activo del año anterior.

14.8.– Las vacaciones se cobrarán por el salario que realmente venga percibiendo el trabajador o la trabajadora en jornada ordinaria de trabajo.

Oporretan lan egin izan balute kobratuko zuketena jasoko dute soldatatzat txandakako langileek.

14.9.– Enpresa uzten duen langileari artikulu honetako 14.2 paragrafoan ezarritakoaren arabera proportzioz dagozkion opor–egunak esleituko zaizkio, hitzarmen honen xedapen iragankorrean ezarritakoarekin batera.

14.10.– 60 urtetik gorako langileek eta 18 urtez azpikoek bi opor-egun gehiago izango dituzte.

14.11.– Lanaldi zatitua egiten duten langileen oporraldia erdizka erabaki ahalko da, hots, % 50 enpresaren irizpidearen arabera eta beste % 50 langileak bere gogara erabakitzen duen moduan.

14.12.– Arauzko oporrak zein hilabetetan hartzen dituen, honako diru-kopuruak jasoko ditu langileak:

a) Urtarril, otsail, martxo eta azaroan: ..... 272,14 euro.

b) Apiril eta maiatzan..... 173,98 euro.

c) Urrian: ..... 134,99 euro.

d) Etenduraren ondorioz: ..... 683,05 euro.

Horko a), b) eta c) idatz-zatietako kopuruak opor-egun guztiei dagozkiela ulertzen da; opor-egunak teorian langileari dagozkionak baina gutxiago badira, bidezko proportzioa aplikatuko da.

14.13.– Enpresaren beharrengatik, Zuzendaritzaren idazki baten bidez, langile baten oporraldia eteten bada, edo oporrak hartzeko hilabete baino gutxiago falta dela jakinarazten bazaio ez dela posible egutegian aurreikusi bezala oporrak hartzea, enpresak 683,05 euro ordaindu beharko dizkio etenaren kontzeptuagatik.

15. artikulua.– Ordaindutako baimenak.

Honako lizentzia hauek emango ditu enpresak, benetako soldata ordainduta, behar bezala justifikatzen badira. Eragin duen gorabehera gertatzen den garaian hartu beharko da lizentzia:

a) 18 egun naturaleko lizentzia ordaindua, ezkontzagatik, langileak gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna badu. Sei hilabeteko antzinatasuna ez badu, 15 egun naturaleko lizentzia.

b) 3 egun –horietako bi, gutxienez, lanegunak–, emazteak erditzeagatik.

